# EGITURAZKO ERREFORMAK
# EGITURAZKO IRTENBIDEAK

*indarkeria sexistaren aurrean*

## NO a la violencia sexista

El 70% de las mujeres en el mundo ha sufrido violencia al menos una vez en su vida. Con este espeluznante dato avalado por instancias e instituciones internacionales reconocidas, y la cifra de 6 mujeres muertas victimas de la violencia sexista en Euskal Herria en lo que va de año, una vez más volvemos a salir a la calle este 25 de noviembre de 2010, día internacional para la eliminación de todo tipo de violencia contra las mujeres. Este día es un día de reivindicación y de lucha y no solo de discursos bonitos y políticamente correctos.

El mundo laboral no escapa a esta lacra, y en él también se siguen reproduciendo expresiones claras y a veces no tan claras de la violencia ejercida contra las mujeres por el mero hecho de serlo.

Las medidas y las reformas estructurales (reforma laboral, reforma de pensiones, negociación colectiva…) que se están adoptando por parte del gobierno estatal y las administraciones vascas ante la crisis, fomentan la desregulación económica y laboral y contribuyen a abonar el terreno para una vida precaria.

Dificultan la autonomía personal y económica sobre todo para las mujeres y colectivos en riesgo de exclusión social. Se perpetúa así la feminización de la pobreza, las desigualdades endémicas entre mujeres y hombres, y por lo tanto, las situaciones de violencia estructural y sexista.

Además, el recorte del gasto social derivado de los planes de ajuste estructural, debilita y nos hace afirmar la falta de compromiso político ante la prevención, tratamiento y erradicación de la violencia contra las mujeres, cuestión de primer orden a pesar de que la agenda política se empeñe en reservarle un espacio secundario.

**Reivindicamos una ofensiva sindical feminista para erradicar la violencia sexista:**

1. Por un mundo laboral libre de violencia, de hostigamiento, acoso sexual y sexista, y de todas las manifestaciones visibles e invisibles de la violencia contra las mujeres.
2. Dignificación de las condiciones laborales y erradicación de medidas discriminatorias para las mujeres en el mercado laboral prestando especial atención a los colectivos mas desfavorecidos entre los que incluimos los sectores feminizados como limpieza, cuidados, y trabajadoras de hogar, entre otros.
3. Una nueva política de empleo centrada en las necesidades de las trabajadoras y trabajadores de Euskal Herria.
4. Reproducción humana como asunto de interés público y la reivindicación de los derechos sexuales y reproductivos de mujeres y hombres, también en el mundo del trabajo.
5. Asegurar un sistema justo y solidario de protección social. Pensiones dignas, prestaciones sociales que garanticen una vida digna para las mujeres.
6. Planes de igualdad efectivos y vinculantes en los centros de trabajo.
7. Cambiar la cultura organizativa del trabajo, como medida efectiva para la corresponsabilidad.

Todo ello bajo el reconocimiento y el amparo de un marco vasco de relaciones laborales y protección social basado en la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

**Porque la violencia contra las mujeres es la expresión más extrema de la falta de igualdad entre mujeres y hombres, desde el sindicalismo decimos:**

# INDARKERIA SEXISTAREN AURKA
# ATZERAPAUSURIK EZ!

**25-11-2010, Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres**

**ELA-LAB-STEE/EILAS-EHNE-HIRU**

# EGITURAZKO ERREFORMAK
# EGITURAZKO IRTENBIDEAK

*indarkeria sexistaren aurrean*

## NO a la violencia sexista

Munduko emakumeen %70ak gutxienik bere bizitzan behin bortizkeria pairatu izan du. Nazioarteko erakunde ezagunek emandako datu beldurgarri hau kontutan izanik eta Euskal Herrian aurten bortizkeria sexistak 6 emakume hil dituela jakinda, kalera ateratzen gara 2010eko azaroaren 25ean, emakumeen kontrako bortxa guztiak desagertatazteko nazioarteko egunez. Hau aldarrikapen eta borroka eguna dugu, ez bakarrik hitzaldi eder eta politikoki zuzenak egiteko eguna.

Gaitz hau lan munduan ere hedatuta dago: batzutan nabarmen, beste batzutan ezkutuago dela ere, hainbat adierazpide ditu emakumeen kontrako bortizkeriak, emakume izatea hutsagatik erabiltzen dena.

Krisia dela-eta estatuko gobernua eta euskal administrazioak erabakitzen ari diren neurri eta erreforma estrukturalek (erreforma laborala, pentsioen erreforma, negoziazio kolektiboarena...) ekonomia eta lan mundua desarautzeko helburua dute eta bizimodu prekariorako bidea prestatzen dute. Pertsonen autonomia eta ekonomikoki aurrera ateratzeko aukera eragozten dute, batik bat gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboentzat. Horrela iraunkor bilakatzen dira pobreziaren feminizazioa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun endemikoak eta, horrenbestez, bortizkeria estruktural eta sexista nagusi den egoerak.

Gainera, doikuntza estrukturaleko planek dakarten gizarte-gastu murriztuak ahuldu egiten du, eta ondorioztapen batera garamatza: ez dago konpromiso politikorik emakumeen aurkako bortizkeriaren prebentzio, arreta eta desagerpena lantzeko; hau zinez gai funtsezkoa da, agenda politikoan bigarren mailako tokia ematen zaion arren.

**Bortizkeria sexista erausteko oldar sindikal feminista bat aldarrikatzen dugu:**

1. Bortizkeriarik, hertsapenik eta jazarpen sexual edo sexistarik gabeko lan mundu baten alde, emakumeen aurkako bortizkeriarik gabea, nabarmena edo ezkutukoa dela ere.
2. Emakumeek lan munduan dituzten baldintzak duintzea eta diskriminazio oro desagerraraztea, batik bat kolektiborik ahulenei arreta emanez: hor ditugu, besteak beste, sektore feminizatuak (garbitasuna, zaintza, etxeko langileak).
3. Bestelako enplegu politika bat, Euskal Herriko langileen beharrizanetan oinarrituta dagoena.
4. Ugaltzea interes publikoko gaitzat hartzea, eta emakume zein gizonezkoen sexu- eta ugaltze-eskubideen aldarrikapena, baita lan munduan ere.
5. Gizarte babeseko sistema justu eta solidarioa bermatzea. Pentsio duinak eta emakumeei bizimodu duina bermatuko duen gizarte-babesa.
6. Lantokietan zinezko berdintasun planak, betebeharrekoak izango direnak.
7. Lan-antolakuntzaren kultura aldatzea, ardurak benetan partekatuak izan daitezen eta erantzukidetasuna lor dezagun.

Hori guztia lan-harreman eta gizarte-babeseko euskal esparruaren aitortza eta itzalean, zeinak oinarritzat emakume eta gizonen aukera berdintasuna izango duen.

**Emakumeen kontrako bortizkeria emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren adierazpiderik latzena delako, sindikalismotik hau esaten dugu:**

# INDARKERIA SEXISTAREN AURKA
# ATZERAPAUSURIK EZ!

2010-11-25 Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

**ELA-LAB-STEE/EILAS-EHNE-HIRU**